

ENERGIA GEOTERMIKOA

Energia geotermikoa zer den eta zure etxean dituen aukerez nola baliatu
ulertzeko gida laburra



n a i d e r

ZER DA ENERGIA GEOTERMIKOA?

Energia geotermikoa energia berriztagarri mota bat da (hau da, ez ditu gure planetako baliabideak agortzen), lurrazpiko tenperatura konstantea klimatizaziorako beroa eta ur bero sanitarioa sortzeko aprobetxatzen duena.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

Zulaketa batzuetan oinarritzen da, non lurrarekin beroa trukutzen den. Bero-trukagailua zirkuitu bertikal itxi bat da, eta bertatik fluido bero-emaile bat (izotz-kontrako ura) ibiltzen da, lurraren beroa hartzeko (edo hozteko lagatzeko); horri esker, etxebizitza klimatizatu eta etxeko ur beroa sortu ahal izango da. Sistemak kontsumo txikiko bero-ponpa bat izango du, fluidoa zirkuituan zirkulatzeaz arduratuko dena.

NOLA INSTALATU DEZAKET GEOTERMIA NIRE ETXEAN?

- ▶ Energia geotermikoa duen etxe batek **azterketa tekniko** bat behar du zulaketak egingo diren lurzoruaren baldintzak ezagutzeko. **Lurzoruaren gogortasuna** (eta, beraz, zulatzeko erraztasuna edo zailtasuna) eta etorkizuneko etxebizitzaren azpian dagoen **zorupeko temperatura** egiaztatzen dira. Nahiago izaten dira temperatura oso ondo mantentzen duten **lur harritsuak**; aitzitik, buztin-lurzoruak ez dira gomendagarriak, eta eragiketa gehigarriak egin behar izaten dira bideragarria izan dadin.
- ▶ Energia geotermikoa duen etxe bat instalatzeko, **makina-gela txiki bat eta zuloak egin behar dira lurrean**, bertikalak gehienetan. Putzuak eraikinaren azpian egon ohi dira, zimenduak eraikitzeko hondeatu behar direla aprobetxatuz.

ERRENTAGARRIA DA ENERGIA GEOTERMIKOA?

- ▶ Bai, batez ere **energia-eskari handiko eraikinetan** (eraikin handiak edo klimatizazioa eskatzen duten instalazioak dituzten eraikinak, igerilekuak, adibidez). Aurretiko azterketa behar bezala egin bada, **energia fotovoltaikoa erabiltzeak** ur bero sanitarioaren ekoizpenean eta klimatizazioan % **75era arteko aurrezpena** eragingo du; izan ere, lurrazpiko oinarrizko beroa konstantea denez (urteko sasoa gorabehera), ez da energia gehiago inbertitu behar muturreko tenperaturetan.
- ▶ **Hasierako inbertsioa 15.000-30.000 € artekoa** da, nahiz eta administrazioen laguntza batzuek zenbateko hori murriztu dezaketen.
- ▶ Prezio horiekin eta lortutako batez besteko aurrezpenarekin, **hasierako inbertsioa 5-10 urteren buruan berreskuratuko da**, eta instalazioaren bizitza erabilgarria **50 urtera artekoa** izan daiteke, mantentze-lanak behar bezala egiten badira.
- ▶ Gainera, eredu energetiko iraunkorra, **ingurumena errespetatzen duena eta buruaskia** lortzen lagunduko duzu.

Beste energia-eredu batzuk ezagutzeak aurreztu egin ditzake fakturak, ingurumenari laguntzen dion bitartean.

*Zalantzarik baduzu edo aholkularitza pertsonalizatua nahi baduzu, jar zaitez harremanetan **Oarsoaldeko Energia Bulegoarekin.***

energia@oarsoaldea.eus | 943.494.129

Zure esanetara gaude!



n a i d e r